

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 19an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanen esleipena onartzea.

Alkate-udalburuaren 2022ko maiatzaren 17ko proposamenak dio:

Gaia: Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanen esleipena onartzea.

1. 2022ko apirilaren 28an elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko epaimahaia bildu zen. Epaimahaia horren aktak honakoa dio:

“1.- Aurrekariak:

2022ko martxoaren 17ko Tokiko Gobernu batzarraren erabakiz elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanak kontratatzearen kontratu txikia onartu zen.

2022ko martxoaren 31ko Tokiko Gobernu batzarraren erabakiz elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia-lehiaketako epaimahaikideen izendapena onartu zen.

Oinarri arautzaileen 10. atalak “ebazpena” xedatutakoaren arabera, epaimahaiak proposamenak baloratu ostean alkateari zuzenduko dio proposamena.

Hori guztia kontuan izanda, epaimahaia osatutzat ematen da eta aurkeztutako proposamenen balorazioarekin hasten da.

2.- Aurkeztutako proposamenak

Proposamen bakarra aurkeztu da: “gaztainondoari aitortza” deritzona.

3.- Ebaluazio irizpideak

Proposamen bakarra aurkeztu da: “gaztainondoari aitortza” deritzona.

1.- Gauzatzearen prezioa: 15 puntu, gehienez.

2.- Gehienezko elementuaren iraupena: 10 puntu.

3.- Material naturalak erabiltzea, bizi-zikloaren amaieran materialak berrerabiltzea: 15 puntu

4.- Bere ezaugarrien eta dimentsioen eta kokatuta dagoen ingurunearen arteko erlazioa eta proportzionaltasuna eta proiektuaren egokitasuna: 20 puntu

5.- Proiektuaren azalpen-memoria: 20 puntu

6.- Proiektua ezagutarazteko proposatutako ekintzak: 10 puntu

4.- Ebaluazioa

Jarraian atal bakoitzean emandako puntuazioa deskribatzen da:

1.- Gauzatzearen prezioa: 15 puntu, gehienez.

Aurkeztutako proposamenak 14.800 € BEZa barneko aurrekontua du.

Gainontzeko proposamenik jaso ez denez, 15 puntu ematen zaizkio.

2.- Gehienezko elementuaren iraupena: 10 puntu, gehienez.

Aurkeztu den proposamenak funtsean basoan ikus daitezkeen gaztainondo-motz baten erreplika egiten du, hiri edo herri inguruko parke batera ekarrita.

Helburu horretan, burdinarekin egindako euskarri-egitura metaliko bat proposatzen da, basotik ekarritako gaztainondo-motz bat luzetara bitan moztuta eta egitura metalikoari “azal” bezala lotuta.

Eguraren azala kanpoarekiko erresistentzia izateko tratamendua ematea jasotzen du memoriak. Halaber, hostoak enberrari lotzeko eta eusteko “belarriak” deskribatzen dira.

Erabilitako materialak eta eraikuntza modua aztertuta elementuaren iraupena ontzat ematen da, nahiz eta hostoak eusteko proposatzen den sistema balizko ekintza bandalikoaren aurrean nahikoa erresistentzia ez duela bermatuko pentsa daiteke.

Aspektu honetan, 7,5 puntu ematen zaizkio.

3.- Material naturalak erabiltzea, bizi-zikloaren amaieran materialak berrerabiltzea: 15 puntu, gehienez.

Burdina eta hormigoia erabili dira euskarri gisa eta egurrarekin eta zeramikazko hostoekin eman zaio kanpoko akabera.

Gainontzeko proposamenik jaso ez denez, 15 puntu ematen zaizkio.

4.- Bere ezaugarrien eta dimentsioen eta kokatuta dagoen ingurunearen arteko erlazioa eta proportzionaltasuna eta proiektuaren egokitasuna: 15 puntu, gehienez.

Aurkezten den proposamenak ezaugarri eta proportzio egokiak ditu, halaber, inguruarekiko integrazioa ere erlazioa eta proportzioa egokiak dira.

Bertako espeziak sustatzeko eta herritarrek kontzientziatzeko proposamenak egiten duen ekarpenaren inguruan bi atal ezberdindu beharra daude: bertako espeziak sustatu edo balion jartzen dira, hain zuzen, gaztainondo baten erreplika egiten baita. Herritarrei begirako kontzientziazioan aldiz, azalpenak emateko brontzezko bi plaka erabiltzen dira, bina testurekin, bata poesia/bertso estilora eta bestea idatzi luzeagoa.

Aspektu hau errepikakorra ikusten da, testu luzea zaila egiten da irakurtzeko, luzeegia.

Faltan botatzen da kontzientziazio horretan aspektu nagusia izan ahalko litzatekeena, gaztaina.

Hori guztia kontuan izanda, aspektu hau bere osotasunean oinarritzotzat baloratu da, guztira 7,5 puntu ematen zaizkio.

5.- Proiektuaren azalpen-memoria: 15 puntu, gehienez.

Aurkeztutako memoria osoa da, koherentea eta aspektu nagusien detailea eta deskribapena egokiak dira.

Aspektu honetan, 11,25 puntu ematen zaizkio.

6.- Proiektua ezagutarazteko proposatutako ekintzak: 10 puntu, gehienez.

Proiektua ezagutarazteko eskaintza zabala eta egokia da, guztira 2 hitzaldi, gaztainondo landaketa bat, irteera bat eta herriko aldirian artikulua bat idaztea proposatzen da.

Aspektu honetan, 10 puntu ematen zaizkio.

Hortaz, aspektu guztiak kontuan izanda, guztira 66,25 puntu ematen zaizkio aurkeztutako "gaztainondoari aitortza" deritzon proposamenari.

Oharrak: proposamenak aurrera egingo balu, gaztainondoa basotik ekarri ahal izateko basozainaren baimenarekin egin beharko da.

Gaia aztertu ondoren, Epaimahaiak ahobatez onartu du aipatutako puntuazioa."

II. 2022ko maiatzaren 5ean ireki zen Gaztainondoaren Aitortzaren gutuna. Bertan, ikusi zen ez zeudela onartutako oinarrietan eskatzen ziren agiri guztiak. Horregatik, errekerimendu bat bidali zitzaion (2022/05/10ean jakinarazita). Oinarrien 6. Arauak honakoa eskatzen du:

A gutun-azal itxian barruan honako hauek jasoko ditu:

- Inskripzio-buletina, behar bezala beteta. (1go eranskina)
- Parte-hartzailearen NANaren fotokopia, eta, hala badagokio, taldekide bakoitzarena.
- Artisten zinpeko aitortpena, aurkeztutako lana originala eta argitaratu gabea dela ziurtatuz. (II. Eranskina)
- Obra gauzatzeko konpromisoa, lehiaketan garaile suertatuz gero. (III. Eranskina)
- Egile-eskubideen lagapena (IV. eranskina).

Gainera, kontratazio egin ahal egiteko erantzukizunpeko adieraztena sinatua igorri beharko da.

III. 2022ko maiatzaren 13an, 1825/2022 zenbakidun sarrera erregistro bidez, Unai Bikuña Uribeecheverria jaunak, Gure Bazterrak Kultur Elkartearen ordezkari bezala, agiri hauek aurkeztu zituen:

- Inskripzio-buletina, behar bezala beteta. (1go eranskina)
- Unai Bikuña Uribeecheverriaren NANaren fotokopia.
- Artisten zinpeko aitortpena, aurkeztutako lana originala eta argitaratu gabea dela ziurtatuz. (II. Eranskina)
- Egile-eskubideen lagapena (III. Eranskina)
- Obra gauzatzeko konpromisoa, lehiaketan garaile suertatuz gero. (IV. eranskina).
- Kontratazio egin ahal egiteko erantzukizunpeko adieraztena sinatua.

Kontratu txikien erregulazioa SPKLren artikulua hauetan jasotzen da:

1. 29.8 artikulua: "Lege honen 118. artikulua lehene apartatuan zehazten diren kontratu txikiak ezin dute iraun urtebete baino gehiago, eta luzatu ere ezin dira egin."

2. 63.4 artikulua: “Kontratu txikiei buruzko informazioa gutxienez ere hiru hilean behin argitaratu beharko da. Kontratu mota horretarako, informazio hau argitaratu beharko da, gutxienez ere: objektua, iraupena, adjudikazioaren zenbatekoa -balio erantsiaren gaineko zerga barne- eta adjudikaziodunaren izena. Kontratuak adjudikaziodunaren izenaren arabera ordenatuko dira.”

3. 118 artikulua: “1. Kontratu txikitat joko dira 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, obra-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, hargatik eragotzi gabe 229. artikuluan estatu-eremuan zentralizatutako obra, zerbitzu eta hornidurei buruz xedatutakoa.

2. Kontratu txikietan, espedientea izapidetzeko, kontratazio-organoak txosten bat egin beharko du, arrazoituta justifikatuz kontratuaren beharra dagoela eta ez dela kontratuaren xedea aldatzen ari, aurreko paragrafoan deskribatutako atalaseak ez aplikatzeko.

3. Halaber, gastua onestea eta dagokion faktura gastuari eranstea eskatuko da; faktura horrek lege hau garatzeko arauetan ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

4. Obra-kontratu txikian, gainera, obren aurrekontua gehitu beharko da, hargatik eragotzi gabe dagokion proiektua izatea, indarrean dauden xedapenek hala eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikuluan aipatzen diren ikuskapen-bulego edo -unitateen txostena eskatu beharko da, lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten dienean.

5. Artikulu honen 2. paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko ordainketa txikiak egiteko kutxa finkoko aurrerakin-sistemaren edo antzeko sistemaren bidez ordaintzen diren kontratuetan, baldin eta kontratuaren balio zenbatetsia 5.000 eurotik gorakoa ez bada.

6. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuko dira.”

4. 131 artikulua: “Kontratu txikiak zuzenean adjudikatu ahalko dira; jarduteko gaitasuna eta prestazioa gauzatzeko beharrezko den lanbide-gaikuntza dituen edozein enpresabururi adjudikatu ahalko zaizkio, 118. artikuluan ezarritako baldintzak betez betiere.

Azaldutakoagatik, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanen kontratua, Gure Bazterrak Kultur Elkarteari (G02818318) esleitzea, Gaztainondoari aitortza eskulturagatik, 14.800 euroengatik BEZa barne.

Bigarrena.- Kontratu txiki honek dakartzan gastua onartzea 14.800€, 2022ko aurrekontuko dagokion partida eta bere lotespen mailaren kontura.

Hirugarrena.- Erabaki hau web orrian argitaratzea.

Laugarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

Bostgarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez Kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohararazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitaletan ageri den datan.

Alkatearen O.I.

IDAZKARIA

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan

